

OAÑ BATZUK GEIGARITZAT

(AZKUE YAUNAK BATZAR BERTAN EGINDAKO IKERPENA)

LENENGOA. *Izkelzain* « académico de la lengua en general » ta *euskalzain* « academico de la lengua vasca » bezela *izkelki* « dialecto en general » ta *euskalki* « dialecto vasco » dira. Arana-Goirik *izkelgi* irazan zuen, beste itz beñi asko bezela, zoñotz ta egoki; baina orduan gure Fonetica etzan aski ezagutzen, *ki* ori (izen eratoñien-*ki*), *t*-ren aldameanean izanañen, *gi* ezin itzuli ditekela yakiteko.

BIGAÑENA. Baliteke norbaitek *euskalzain* ori « anfibio-logia-kabia » dala yañkitzea! « *academico de lengua vasca* » ta « *vena vasca* » izango litzakigula; ta naspil ofi bidea ebakitzeke obe litekela *euskalzai* erabiltea. *Euskalzai* berau ere beste ain beste genuke : naspil-itufia. *Zain* « vena » bezela, *zai* « salvado » degu; ta *euskalzai* « salvado vasco » ta « academico del vascuence » litzakiguke.

IRUGAÑENA. *Euskaldun*, *euskalgaitz*, *euskalgaitz*. *L* ofi yatoñiz omen-dagokio *petaka bodega* itzultzea. Au ere noiz ta nola dan.

« Deklinazionean » Bizkayeraz *Usurñbilgo*, *Usurñbildik*, *Lañraulgo*, *Lañrauldik*... esaten degu; *ilgo da* ere bai, *ilko da* ren ofdez. Azken-gertakari au ere deklinazionezkoa da.

Izen eratoñietan, Bizkayeraz era, bestera da legea : *t-k* *petaka*, *petaka* uzten du : *Isilka*, *misilka*, *esztulka*, *mutilko*, *isilkoñ*, *itzalkoi*, *isiltasan*, *aullasan*. Atzizki bakaf bat dazaugu, onelako itzetan, *t* biguntzen duena : *tu*. *Isildu*, *auldu*, *mutildu*... Atzizki au latinetikoa emendegu ta ez zaf-zafa. Gainera, bigunaldietan izan izañen, Bizkaiko seme ta Giputz askok *du* auñez erabilten dute, batez ere

orain eun bat ufteraíte. Érdaladitz-ardun geyenen ondoren ta *er* ta *irdun* batzukin ere bai : *Konfesadu, érezadu prijidu, konbertidu, esleidu, leidu, koyidu*...e.a. Azkoiti-Azpeitiko *eskau, gertau, gerau*,..... ta beste beredinen yatoría ezta *eskatu, gertatu, geratu* : *eskadu*...., baizik.

Gure egunetan Bizkaitaí geyenak, ez bakaírik *d* baita u ere uldu egiten dute oíelako érdaladitz askotan : *bota, tira, éreza, konfesa, laga* edo *larga*. Bai ta euskaladitz batzuetan ere : *geíta, alera*.

Euskerazkoa dirudien *o'ni*-tik *o'nidu* esaten degu bizkayeraz. Frantzesak eta italiaíak onen antzeko itz bat dute : *fournir, fornire*. Alemán zaíen *frumjan* omenda onen yatoría.

LAUGAÍENA. Ikeípen onetako itz bat « *irtetzen* » entzutean, norbaitek euskalgaiztotzat aítu zuen itz ori. *Yotzen, isillzen, ekartzera* esan-aíen, *tze* ori -n azkenkitzat duten aditzai ezomendagokie. *Egitea, esaten, egoteko, ematera, entzutea*-ren oídez *egitzea, esatzen, egotzeko, ematzera, entzulzea*, euskalgaizto oíetan buruz bêra erori gabe, ezin erabili ditezke. Egia. Bainan eíiak, gure nagusi dan eíiak, *tete*-ri gogof eritzita naski, bi aditz enedun, *tze* bitaíte dutela, erabili oi ditu : *í'ten* ta *eten*. *Í'tetzera, etetzeko, í'tetzen, etelzea* esaten du gure agots-legeginak. *Í'teten, eteten, í'tetea, etetea* : auxe litzake euskalgaiztoa.

BILBÓN, 11-XI-1919.
